



Ebazpena, Justizia Administrazioiko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baitira Justizia Administrazioiko kidego orokorretako funtzionarioak lanpostu berrietara atxikitzeko irizpideak eta egokitze-prozesuaren garapena; lanpostu horiek Eibar, Donostia, Vitoria-Gasteiz eta Barakaldoko barruti judizialako lurralde-eremuko bulego judizialakoak, udalerrietako eta haien elkarreetako justizia-bulegoetakoak eta erregistro zibileko bulego orokorretakoak dira.

Urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoak, Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Efizientziaren Arloko Neurriei buruzkoak, antolamendu judizialaren eredu berria ezartzen du, besteak beste.

Behin egitura-agindu berria eta Eibar, Donostia, Vitoria-Gasteiz eta Barakaldoko barruti judizialako lurralde-eremuko bulego judizialako, udalerrietako eta haien elkarreetako justizia-bulegoetako eta erregistro zibileko bulego orokorretako lanpostu-zerrendak onartu ondoren, langile guztiak egokitze prozedurari ekin behar zaio.

Hala, ordezkaritza handieneko antolakunde sindikalekin negoziatu ondoren, lege aurreikusitako eskakizunak beteta, eta Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuak emandako eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

Ebazpen honen xedea da Justizia Administrazioiko kidego orokorretako funtzionarioak lanpostu berrietara atxikitzeko irizpideak eta egokitze-prozesuaren garapena arautzea; lanpostu horiek Eibar, Donostia, Vitoria-Gasteiz eta Barakaldoko barruti judizialako lurralde-eremuko bulego judizialakoak, udalerrietako eta haien elkarreetako justizia-bulegoetakoak eta erregistro zibileko bulego orokorretakoak dira.



2. artikulua.– Eremu subjektiboa.

Egokitze-prozesu horrek aurreko artikuluan aipatutako bulegoetan behin betiko destinoa duten karrerako funtzionarioei eragingo die, baldin eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean egoera hauetako batean badaude:

- Zerbitzu aktiboa.
- Lanpostua gordetzea dakarren edozein egoera; besteak beste:
 - Zerbitzu bereziak.
 - Senideak zaintzeko eszedentziaren lehenengo bi urteak.
 - Justizia Administrazioako ordezkio letradu izendatutako Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko pertsonak, lanpostu-erreserba badute.

Atxikipen-prozesutik kanpo geratzen dira Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundean, Bulego Fiskalean eta Gobernu Idazkaritzan behin betiko destinoa duten karrerako funtzionarioak.

3. artikulua.- Izendapen askeko deialdia.

Dagokion lanpostu-zerrendan hornitze-sistema hau ezarria duten lanpostuak beteko dira prozedura-mota honen bitartez.

Lehiaketan parte hartzen duten langileek deialdian ezarritako baldintza orokorrak nahiz betekizunak bete beharko dituzte parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta behin betiko ebazpena eman arte mantenduko dira.

Hutsik geratzen diren izendapen askeko lanpostuak ez dira beteko atxikitze-prozesu honen hurrengo faseetan.

4. artikulua.– Berariazko lehiaketarako deialdia.

Prozedura honen bidez, dagokion lanpostu-zerrendan hornitze-sistema hau ezarrita duten lanpostuak beteko dira; hau da, kudeatzaile arduradunen lanpostuak eta hizkuntza dela-eta bereziturik daudenak.

Prozeduran parte hartzen duten langileek eskatzen diren baldintza orokorrak eta dagokion deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta deialdiari buruzko behin betiko ebazpena eman arte eutsi beharko diete.

5. artikulua.– Borondatezko berrespena.

Berrespen bidez bete daitezkeen lanpostuak egitura berrian mantentzen diren lanpostuak izango dira, edota antzeko edukia duten funtzioak dituztenak, nahiz eta beste izen bat izan. Zehazki, berretsi daitezkeen lanpostuak, generikoak eta berariazko lehiaketan bete ez diren eskakizun bereizikoak izango dira, ezarritako irizpideei jarraituta:

- I. eranskinean, Eibarko barruti judizialerako.
- II. eranskinean, Donostiako barruti judizialerako.
- III. eranskinean, Vitoria-Gasteizko barruti judizialerako.
- IV. eranskinean, Barakaldoko barruti judizialerako.

Egungo plantillako langileen kopuruak antolakunde berriko lanpostu-zerrendetan aurreikusitako dotazioak gainditzen baditu, egokitzea egin aurretik lanpostuan antzintasun handiena duten kolektibo bakoitzeko funtzionarioek izango dute lehentasuna lanpostuen berrespena lortzeko. Berdintasuna gertatuz gero, maila altuena duenak izango du lehentasuna.

Justizia Administrazioko Zuzendaritzak berrespen-proposamena argitaratuko du EIZU justiziako langileen atarian eta justizia.eus intranetean.

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, funtzionarioek 3 egun balioduneko epea izango dute adostasuna edo desadostasuna adierazteko; elektronikoki egin beharko dute adierazpen hori, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/langile-hornikuntza/2026/1/berrespena/web01-a2justic/eu/>

Ezarritako epean erantzunik jasotzen ez bada, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak ulertuko du ez dagoela ados.

Ados ez dauden funtzionarioek langileak berrantolatzeke fasean hutsik geratzen diren lanpostuak eskuratu ahal izango dituzte.

Borondatezko berrespen bidez lortutako lanpostuak behin betikoak izango dira, horretarako egindako izendapenaren arabera.

6. artikulua.– Langileen berrantolaketa.

Borondatezko berrantolaketan, aurreko faseetan hutsik geratu diren lanpostu guztiak aukeratu ahal izango dira, eta V. eranskinean ezarritako lehentasun-ordenari jarraituko zaio.

Lehentasun-ordena bakoitzean, lehentasuna izango dute egokitzapenaren aurreko lanpostuan antzintasun handiena duten kolektibo bakoitzeko funtzionarioek. Berdintasuna gertatuz gero, maila altuena duenak izango du lehentasuna.

Justizia Administrazioko Zuzendaritzak prozesu honetan parte hartzera deitutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, bai eta eskaintako plaza hutsak ere, EIZU justiziako langileen atarian eta justizia.eus intranetean.

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, funtzionarioek 3 egun balioduneko epea izango dute parte hartzeko eskabidea aurkezteko, horretarako egindako formulario elektronikoaren bidez; formulario hori helbide honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/langile-hornikuntza/2026/1/berrantolaketa/web01-a2justic/eu/>

Justizia Administrazioko Zuzendaritzak ulertuko du fase honetan parte hartzeko eskabidea aurkezten ez duten langileek nahitaezko berresleipena aukeratzen dutela.

Borondatezko berrantolaketa bidez lortutako lanpostuak behin betikoak izango dira, horretarako egindako izendapenaren arabera.

7. artikulua-. Nahitaezko berresleipena.

Nahitaezko berresleipenaren bidez beteko dira aurreko prozedurak ebatzi ondoren hutsik geratu diren bulegoetako unitateetako lanpostuak. Dagokion bulegoaren ezarpenean sartuta dagoen organoren batean destinatutako pertsonen soilik eragingo die, baldin aurreko prozeduren bidez lanposturik lortu ez badute.

Nahitaezko berresleipena lanpostuak behin betiko esleituz egingo da. Berresleipen hori egiteko aplikatuko den irizpidearen arabera, lehentasuna izango dute egokitzapenaren aurretik antzintasun handiena zuten langileek, eta, berdinketa badago, maila altuena zutenek.

Justizia Administrazioko Zuzendaritzak lanpostuen esleipena argitaratuko du EIZU justiziako langileen atarian eta justizia.eus intranetean.

Esleitutako lanpostuari atxikitzea nahitaezkoa eta behin betikoa izango da.



8. artikulua.– Egokitzapen-prozesuaren bermeak.

Berariazko lehiaketa-fasean, plaza baten esleipendun izateak ez dakar ordainsariaren erreserbarik.

Berrespen- eta berrantolatze-kasuetan, destino berriko antzintasun-denbora jatorrizko destinoa eskuratzeko ebazpenaren egunetik hasiko da zenbatzen, bai langile sartu berriak badira, bai lekualdatze-lehiaketaren bidez lanpostua eskuratu dutenak badira.

Funtzionario sartu berrien kasuan, jatorrizko destinoko zentrora lehen aldiz behin betiko sartzeko ebazpena eman zen egunean hasiko da lehiaketan parte hartu ahal izateko lanpostuan eraman beharreko gutxieneko denbora zenbatzen, edo, 1451/2005 Erregelamenduaren 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, deialdia ebazten den egunetik aurrera.

Nahitaezko berresleipenak eragindako funtzionarioak salbuetsita egongo dira lanpostuan gutxienez denbora jakin bat eramateko derrigortasunetik (Justizia administrazioako funtzionarioen sarbiderako, lanpostu-hornikuntzarako eta lanbide-sustapenerako arautegia onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 46.1 artikuluan adierazten da derrigortasun hori), eta lehentasuna izango dute jatorrizko destinoko zentroan lanpostu bat lortzeko, zentro horretako plazak eskaintzen diren lanpostu generikoen lehenengo lehiaketan.

Funtzionario bati ere ez zaizkio murriztuko egokitze-prozesua hasi den unean jasotzen ari den ordainsari osagarri finkoak, baldin eta, prozesu hori dela-eta, funtzionario horrek ezin badu berrespen bidez lortu antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bat eta ordainsari osagarri txikiagoak dituen lanpostu bat bete beharra egokitzen bazaio. Ordainsari horiek mantentzea ezin izango da ez konpentsatu, ez irentsi, eta mantendu egingo da lanpostua borondatez aldatzen ez den bitartean.

Baldin egokitze-prozesuan funtzionario batek ez badu berrespen bidez lortzen, bere borondatearen kontra, une horretara arte ematen zuen guardia-zerbitzua egitea dakarren lanpostu bat, ez du zerbitzu horren ordainsaria galduko, baina ezarritako txandean arabera egin beharko du zerbitzu hori, ordainsariari berariaz uko egiten ez badio. Egoera horrek bere horretan jarraituko du lanpostua borondatez aldatzen ez den bitartean.



9. artikulua.– Behin-behineko atxikipenak.

Behin-behineko atxikipenean dauden funtzionarioak LPZ berriko lanpostu batera atxikiko dira behin-behinean, behin langile guztiak egokitzen direnean.

10. artikulua.- Zerbitzu-eginkizunak eta ordezkapenak aipatutako edozein bulegotako lanpostu batean.

Behin betiko destinoa duten funtzionarioen egokitzapena amaitu ondoren, eta bitarteko langileak izendatu aurretik, bete gabe geratzen diren lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan bete ahal izango dira, edo, bestela, egokitze-prozesua egiten den unean dagokion herrian egoera horretan (hau da, zerbitzu-eginkizunetan) dauden funtzionarioek ordezkatu ahal izango dituzte.

Horretarako, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

1. Zerbitzu-eginkizunetan dauden funtzionarioak.
2. Ordezko funtzionarioak.

Lehentasun-ordena bakoitzean, lehentasuna izango dute zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean antzinasun handiena duten langileek. Berdintasuna gertatuz gero, maila altuena duenak izango du lehentasuna.

11. artikulua.– Bitarteko langileak.

1. Egokitze-prozesua egiteko, aldez aurretik beren kargutik kenduko dira Eibar, Donostia, Vitoria-Gasteiz eta Barakaldoko barruti judizialean zerbitzua ematen ari diren bitarteko langile guztiak. Kargutik kentzeak egokitze-prozesua egiten den egunetik aurrera izango du eragina.
2. Karrerako funtzionarioen ordezkari izendatutako bitarteko langileak berriro izendatuko dira titular horien ordezkari, absentzia eragin zuen kausa beragatik, titularrok atxikitako lanpostuetan, baldin eta lanpostu-zerrendan kasuan kasuko lanposturako eskatutako betekizunak betetzen badituzte.

Ordezkapena egiten ari den bitarteko langileak ez baditu betetzen ordezkari den titularra atxikita dagoen lanposturako eskatzen diren baldintzak, bitartekoentzako eskaintza-prozeduran parte hartuko du.

3. Aurreko paragrafoetan adierazitako fase guztiak burutu ondoren, karrerako funtzionarioei atxiki ez zaizkien lanpostuak udalerri horretan zerbitzuan diharduten bitarteko langileei eskainiko zaizkie; hala, bitarteko langile horiek lanpostu guztien artean aukeratu ahal izango dute eskaintza hau egiten denean, baldin betekizun guztiak betetzen badituzte lanpostu-zerrendaren arabera; horretarako, dagokien lan-poltsan duten postua hartuko da irizpidetzat; ezingo dute parte hartu lan-poltsak kudeatzeko aplikazioko aukeren artean udalerri hori jasota ez dutenek.

Hori gauzatze aldera, udalerri bakoitzean prozesu horrek eragiten dien bitarteko langileen zerrenda argitaratuko da, baita udalerri bakoitzean eskaini beharreko lanpostuak ere.

4. Bitarteko langileek lan-poltsetan duten egoerari ez dio eragingo eskatutako baldintzak ez betetzeagatik edo udalerri hori aukeratuta ez izateagatik lanposturik lortu ez izanak. Langile horien kargu-uztea bitarteko funtzionarioen aldi baterako administrazio-harremanaren ohiko amaiera gisa izapidetuko da.
5. Ondoren, plaza guztiak bitarteko langile horiek bete ezin badituzte, lanpostuak betetzeko sistema arrunten bidez beteko dira.

12. artikulua.- Plaza bereziak.

Nolanahi ere, edozein fasetako plaza bereziak betetzeko egiaztatu beharko da betetzen direla plaza horiek eskuratzeko eskatzen diren baldintzak.

13. artikulua.- Prozesuaren gaineko informazioa eta jarraipena.

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak prozeduraren garapenaren eta izapideen gaineko informazio eguneratua eskainiko du EIZU justiziako langileen atariaren eta justizia.eus intranetaren bidez.

Horretarako, prozesu horretan ukitutako langileen zerrenda argitaratuko da, lantokian duten antzinatasuna eta argitaratutako azken maila-hurrenkeran duten posizioa adieraziz, hori hartu baita erreferentziatzat.



14. artikulua.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta beronen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluaaren eta hurrengoaren arabera. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoa Justiziako sailburuordeari aurkeztu ahal izango zaio. Gora jotzeko errekurtoa aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu ahal izango da errekurtoa, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

MARÍA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

I. ERANSKINA. EIBARKO BARRUTI JUDIZIALEAN BERRETS DAITEZKEEN LANPOSTUEN TAULA

NOJ LANPOSTUA	NUMO LANPOSTUA
KPAK Idazkaritza Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkarte	KPAK Idazkaritza UJB/ UJB elkarte
KPAK Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkarte	KPAK UJB/ UJB elkarte
LJK Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkarte	LJK UJB/ UJB elkarte
IPAK ZULUP Erregistro Zibila	IPAK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
KPAK ZULUP Lehen auzialdia eta Instrukzioa	KPAK AAKO IZE Arlo Zibila eta Instrukziokoa
KPAK ZULUP Em. Ind.	KPAK AAKO IZE Arlo Zibila eta Instrukziokoa. Em. Ind. lantaldea
KPAK ZULUP Lan-arloa	KPAK AAKO IZE Lan-arloa
IPAK ZULUP Lehen auzialdia eta Instrukzioa	IPAK AAKO IZE Arlo Zibila eta Instrukziokoa
IPAK ZULUP Em. Ind.	IPAK AAKO IZE Arlo Zibila eta Instrukziokoa.Em. Ind. lantaldea
IPAK ZULUP Lan-arloa	IPAK AAKO IZE Lan-arloa
KPAK ZO – Atal orokorra	KPAK ZEO
IPAK ZO – Atal orokorra	IPAK ZEO
LJK ZO – Atal orokorra	LJK ZEO

II ERANSKINA. DONOSTIAKO BARRUTI JUDIZIALEAN BERRETS DAITEZKEEN LANPOSTUEN
TAULA

NOJ LANPOSTUA	NUMO LANPOSTUA
KPAK Idazkaritza Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkartea	KPAK Idazkaritza UJB/ UJB elkartea
KPAK Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkartea	KPAK UJB/ UJB elkartea
IPAK Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkartea	IPAK UJB/ UJB elkartea
LJK Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkartea	LJK UJB/ UJB elkartea
KPAK ZULUP Erregistro Zibila	KPAK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
IPAK ZULUP Erregistro Zibila	IPAK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
LJK ZULUP Erregistro Zibila	LJK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
KPAK ZULUP Probintzia-auzitegia	KPAK PAko IZE
IPAK ZULUP Probintzia-auzitegia	IPAK PAko IZE
KPAK ZULUP Zibila	KPAK AAKo IZE Arlo Zibila
KPAK ZULUP Familia	KPAK AAKo IZE Familia arloa
KPAK ZULUP Merkataritza	KPAK AAKo IZE Merkataritza arloa
KPAK ZULUP Instrukzioa	KPAK AAKo IZE Instrukzio arloa
KPAK ZULUP Em. Ind.	KPAK AAKo IZE Em. Ind. arloa
KPAK ZULUP Zigorra	KPAK AAKO IZE Zigor arloa (Zigor-betearazpen lantaldea izan ezik)
KPAK ZULUP Adingabeak	KPAK AAKo IZE Adingabeen arloa
KPAK ZULUP Administrazioarekiko auzia	KPAK AAKo IZE Administrazioarekiko auzien arloa
KPAK ZULUP Lan-arloa	KPAK AAKo IZE Lan-arloa
IPAK ZULUP Zibila	IPAK AAKo IZE Arlo Zibila
IPAK ZULUP Familia	IPAK AAKo IZE Familia arloa
IPAK ZULUP Merkataritza	IPAK AAKo IZE Merkataritza arloa
IPAK ZULUP Instrukzioa	IPAK AAKo IZE Instrukzio arloa
IPAK ZULUP Em. Ind.	IPAK AAKo IZE Em. Ind. lantaldea
IPAK ZULUP Zigorra	IPAK AAKO IZE Zigor arloa (Zigor-betearazpen lantaldea izan ezik)
IPAK ZULUP Adingabeak	IPAK AAKo IZE Adingabeen arloa
IPAK ZULUP Administrazioarekiko auzia	IPAK AAKo IZE Administrazioarekiko auzien arloa
IPAK ZULUP Lan-arloa	IPAK AAKo IZE Lan-arloa
KPAK ZEPB KEBEZE	KPAK ZEO KEBEZE
KPAK ZEPB Erregistroa eta banaketa	KPAK ZEO Erregistroa eta banaketa
KPAK ZEPB Beste zerbitzuak	KPAK ZEO Zerbitzu orokorrak
IPAK ZEPB KEBEZE	IPAK ZEO KEBEZE
IPAK SCPG Erregistroa eta banaketa	IPAK ZEO Erregistroa eta banaketa
IPAK ZEPB Beste zerbitzuak	IPAK ZEO Zerbitzu orokorrak
LJK ZEPB KEBEZE	LJK ZEO KEBEZE
LJK ZEPB Beste zerbitzuak	LJK ZEO Zerbitzu orokorrak

III. ERANSKINA. VITORIA-GASTEIZKO BARRUTI JUDIZIALEAN BERRETS DAITEZKEEN
LANPOSTUEN TAULA

NOJ LANPOSTUA	NUMO LANPOSTUA
KPAK Idazkaritza Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkarte	KPAK Idazkaritza UJB/ UJB elkarte
KPAK Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkarte	KPAK UJB/ UJB elkarte
IPAK Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkarte	IPAK UJB/ UJB elkarte
LJK Bake epaitegia/ Bake epaitegien elkarte	LJK UJB/ UJB elkarte
KPAK ZULUP Erregistro Zibila	KPAK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
IPAK ZULUP Erregistro Zibila	IPAK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
LJK ZULUP Erregistro Zibila	LJK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
KPAK ZULUP Probintzia-auzitegia	KPAK IZE AP
IPAK ZULUP Probintzia-auzitegia	IPAK IZE AP
KPAK ZULUP Zibila	KPAK AAKO IZE Arlo Zibila
KPAK ZULUP Familia	KPAK AAKO IZE Familia arloa
KPAK ZULUP Instrukzioa	KPAK AAKO IZE Instrukzio arloa
KPAK ZULUP VSM	KPAK AAKO IZE Em. Ind. arloa
KPAK ZULUP Zigorra	KPAK AAKO IZE Zigor-arloa
KPAK ZULUP Adingabeak	KPAK AAKO IZE Adingabeen arloa
KPAK ZULUP Administrazioarekiko auzia	KPAK AAKO IZE Administrazioarekiko auzien arloa
KPAK ZULUP Lan-arloa	KPAK AAKO IZE Lan-arloa
IPAK ZULUP Zibila	IPAK AAKO IZE Arlo Zibila
IPAK ZULUP Familia	IPAK AAKO IZE Familia arloa
IPAK ZULUP Instrukzioa	IPAK AAKO IZE Instrukzio arloa
IPAK ZULUP Em. Ind.	IPAK AAKO IZE Em. Ind. lantaldea
IPAK ZULUP Zigorra	IPAK AAKO IZE Zigor-arloa
IPAK ZULUP Adingabeak	IPAK AAKO IZE Adingabeen arloa
IPAK ZULUP Administrazioarekiko auzia	IPAK AAKO IZE Administrazioarekiko auzien arloa
IPAK ZULUP Lan-arloa	IPAK AAKO IZE Lan-arloa
KPAK ZEPB KEBEZE	KPAK ZEO KEBEZE
KPAK ZEPB Erregistroa eta banaketa	KPAK ZEO Erregistroa eta banaketa
KPAK ZEPB Beste zerbitzuak	KPAK ZEO Zerbitzu orokorrak
IPAK ZEPB KEBEZE	IPAK ZEO KEBEZE
IPAK ZEPB Erregistroa eta banaketa	IPAK ZEO Erregistroa eta banaketa
IPAK ZEPB Beste zerbitzuak	IPAK ZEO Zerbitzu orokorrak
LJK ZEPB KEBEZE	LJK ZEO KEBEZE
LJK ZEPB Beste zerbitzuak	LJK ZEO Zerbitzu orokorrak

IV. ERANSKINA. BARAKALDOKO BARRUTI JUDIZIALEAN BERRETS DAITEZKEEN LANPOSTUEN
TAULA

NOJ LANPOSTUA	NUMO LANPOSTUA
KPAK Idazkaritza Bake epaitegia	KPAK Idazkaritza UJB
KPAK Bake epaitegia	KPAK UJB
IPAK Bake epaitegia	IPAK UJB
LJK Bake epaitegia	LJK UJB
KPAK ZULUP Erregistro Zibila	KPAK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
IPAK ZULUP Erregistro Zibila	IPAK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
LJK ZULUP Erregistro Zibila	LJK Erregistro Zibilaren Bulego Orokorra
KPAK ZULUP Zibila	KPAK AAKO IZE Arlo Zibila
KPAK ZULUP Familia	KPAK AAKO IZE Familia arloa
KPAK ZULUP Instrukzioa	KPAK AAKO IZE Instrukzio arloa
KPAK ZULUP VSM	KPAK AAKO IZE Em. Ind. arloa
KPAK ZULUP Zigorra	KPAK AAKO IZE Zigor-arloa
IPAK ZULUP Zibila	IPAK AAKO IZE Arlo Zibila
IPAK ZULUP Familia	IPAK AAKO IZE Familia arloa
IPAK ZULUP Instrukzioa	IPAK AAKO IZE Instrukzio arloa
IPAK ZULUP Em. Ind.	IPAK AAKO IZE Em. Ind. arloa
IPAK ZULUP Zigorra	IPAK AAKO IZE Zigor-arloa
KPAK ZEPB KEBEZE eta beste zerbitzuak	KPAK ZEO KEBEZE eta Zerbitzu orokorrak
KPAK ZEPB Erregistroa eta banaketa	KPAK ZEO Erregistroa eta banaketa
IPAK ZEPB KEBEZE eta beste zerbitzuak	IPAK ZEO KEBEZE eta Zerbitzu orokorrak
IPAK ZEPB Erregistroa eta banaketa	IPAK ZEO Erregistroa eta banaketa
LJK ZEPB KEBEZE eta beste zerbitzuak	LJK ZEO KEBEZE eta Zerbitzu orokorrak



V. ERANSKINA. LEHENTASUNEN TAULA, BORONDATEZ BERRANTOLATZEKO FASEAN, EIBAR, DONOSTIA, VITORIA-GASTEIZ ETA BARAKALDO BARRUTI JUDIZIALETAN

LEHENTASUN MOTA	BARRUTI JUDIZIALA	LANGILE LEHENETSIAK	Lehentasunaren eraginpeko LANPOSTUAK
1. lehentasuna	Eibar	Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorreko Betearazpen Atalean eta Betearazpenekoan behin betiko destinoa duten langileak	Edozein lanpostu
	Donostia	Betearazpen Zerbitzu Erkidean behin betiko destinoa duten langileak	
	Vitoria-Gasteiz		
	Barakaldo		
2. lehentasuna	Eibar	Aurreko faseetan destinoa lortzerik izan ez duten langileak. Kasu horretan sartzen dira: a. Berariazko lehiaketan parte hartu bai, baina esleipendun izan ez diren langileak. b. Borondatezko berrespenaren multzokoak izaterik bazuten ere, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik berrespen-fasean lanposturik eskaini ez zaien langileak.	Edozein lanpostu
	Donostia		
	Vitoria-Gasteiz		
	Barakaldo		
3. lehentasuna	Eibar	Udalerrian behin betiko destinoa duten gainerako langileak	Edozein lanpostu
	Donostia		
	Vitoria-Gasteiz		
	Barakaldo		